298. zk.
Bigarren aroa
Apirilak 1
2017

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Ribera bekak
4-5. orrialdeetan

Kirolak
Irungo Txirrindulari Elkartea
8. orrialdean

3 Elkarrizketa Idoia Genua, AEKko irakaslea.
6 Publirreportajea Egonaldi ezberdinak Caserren.
7 Elkarrizketa Alicia Cebrián, ilustratzailea.
10 Kolaborazioa Gorka Martinez - Mendi ibilbidea Artikutzan.
11 Haurren Leihoa
12 Gazteen Lanak
13 Gaztea Euskararen Hilabetea.
14 Gazte infor
15 Agenda

bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus

- ✓ Irunen Igogailu Mantenurako Enpresarik aproposena
- ✓ 24 orduko benetako zerbitzua
- ✓ Piezak barne hilean 100 € - tatik
- ✓ Telefono línea barne
- ✓ Euskerazko zerbitzua
- ✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

Argazki lehiaketa

Beñat Gomez.
Gain Gainean parkea.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 40814

Peña kalea

Irungo ongilea izan zen José Peña Esteban jauna. Haren oroimenean jarri zuten kalearen izena. Izan ere, hil zenean, kobrezko milioi erdi erreal utzi zituen Peñak dirutan, eta beste berrehun mila erreal Estatuko paperetan, Irungo behartsuentzat. Zahatzago, Benefizientzia Batzordeak eramaten zuen Udal Egoitzarentzat.

José Peñak dirutza egin zuen Puerto Ricon, plantazio eta komertzio handien jabe izan baitzen. 1848an itzuli zen Irunera, gaixo, eta urte bereko azaroaren 12an zendu zen.

1879an, Juan José Aginaga arkitektuari enkargatu zioten egungo Peña kalea eraikitzeko proiektua. 1883an zabaldu zuten, eta 4.576 pezetako kostua izan zuten lanek (Sarjia kaleko eskailerak barne).

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun.
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com
Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

IDOIA GENUA, AEKko irakaslea:

“Korrikari esker jendea konturatzen da euskararena unibertso handi bat dela”

Apirilaren 4an helduko da Korrika Irunera. Oiartzundik sartuko da, 14:00 inguruan. Hendaiara pasako da gero, eta Hondarribira bidean bueltatuko da, 16:00etan. Bidasoaldeko AEKn hilabeteak daramatzate Korrika prestatzen. Idoia Genuak ondo daki ahaleginak merezi duela, 80ko hamarkadaz geroztik baitabil AEKn lanean. Korrikaren lehen lau edizioak kanpotik bizi izan zituen (urtero egiten zen hasieran). Hurrengoak, aldiz, barrutik. 20.edizioa du aurten Korrikak.

AEKko langile batentzat, zer da Korrika, zenbat lan eskatzen du?

Lan gehiena aurreko asteetan izaten dugu, Korrika pasatu arte. Klaseak ez dira gelditzen, eta lan karga handia izaten da, beraz. Hala ere, ezin da ukatu guretzat Korrika sekulako ekimena dela, uste dut toki ona hartu duela azken urteotan. Euskal Herri osoan zehar egiten den jarduera bakarrenetako bat da. Lan handia eskatzen du, baina emaitzak goxatu egiten du. Adibidez, Korrika pasatzen den urteetan sumatzen da ohi baino jende gehiago animatzen dela euskara ikastera.

Ilusioa mantentzen duzu?

Badira lan batzuk ez direnak atseginak izaten, dirua dendaz-denda eta tabernaz-taberna eskatzea, adibidez. Baina gu ohituta gaude, eta zorionez, laguntzaileak ere baditugu. Jendeak badaki zer den Korrika, eta zertarako egiten den.

Zer sentitzen duzu zuk Korrika Irunen sartzen denean?

Azken edizioetan “petonetan” joatea egokitu zait. Petoak saltzeko furgonetari deitzen diogu horrela. Gu Korrikaren aurretik joaten gara, eta oso polita izaten da jendearen berotasuna sentitzea. Emozioak transmititu egiten dira, eta tripak nahasi egiten zaizkizu.

Eferbeszentzia hori badago, bi urtean behin, Korrika pasatzen denean. Baina nola mantendu urte osoan zehar?

AEKren jardunean sartuko ginateke hor. Ikaslearen tipologia aldatu egin da azken urteetan. Badago jende asko euskalduna izateko ikasten duena. Baina titulua lortzeko premian daudenak ere etortzen dira.

Zentzu horretan, Korrika tresna baliagarria da, jendea kontura dadin euskararena unibertso handi bat dela, eta euskararen bitartez gauza asko ezagutuko dituela.

AEKk baditu ezaugarri batzuk, beste euskaltegiek ez dauzkatenak. Euskalgintzaz gaindi doa, herrigintzan, elkarteekin harremanetan dihardu AEKk.

Ahal dugun neurrian egiten dugu, baina ez dut uste behar adinakoa denik, hala ere. Euskararen Egunak ekimena sortu genuen duela zenbait urte, adibidez, abenduaren 3aren harira.

Helburua Euskal Herria euskalduntzea izanik, egia da ikasle asko titulua ateratzeko helburuarekin gerturatzen direla. Nolabaiteko lehia bat sortzen da?

Egia da, baina gertatzen dena da, euskaltegian konturatzen direla titulua abiapuntu bat baino ez dela. Zorionez, klasean ere badago titulurik nahi ez duen jendea, bilobekin hitz egiteko ikasten duena, adibidez.

Diru-laguntzen mundua ere hor dago, tituluen baitan daudelako. Urrats bat gainditu beharra dago titulua eskuratzeko. Badago jendea bi urte beharko lituzkeena urrats hori gainditzeko, baina urte beten gainditzen ez baldin badu, diru-laguntzarik gabe geratzen da.

Euskararen ezagutza aurrera doa, baina erabilera da erronka nagusia, eskualdean.

Zalantzarik gabe. Nik ez dut ulertzen zergatik ez den erabiltzen. Gaur egun, baliabide guztiak ditugu aldeko, baina ez dugu sinesten euskaraz bizi gaitezkeenik. Hori horrela den bitartean, alferrik ari gara. Oraindik ere, euskaldun izatea ez da erraza, landu egin behar da. Militantzia bat eskatzen du, zoritxarrez, gure hizkuntza ez delako hegemonikoa bere herrian.

Badira urte batzuk D eredua martxan dagoela. Baina zer gertatzen da? Karga guztia haurrengan jartzen dugula. Guraso asko ez dira euskaraz bizi, eta horrela, haurrek ikusten dutena da helduen hizkuntza, hizkuntza serioa, Irunen, gaztelania dela. Helduok ere gure ardura hartu behar dugu, gure motxila kargatu.

Irunen, lehen hitza euskaraz eginez gero, konturatuko gara guk uste baino jende gehiagok dakiela euskaraz.

Bai, askotan uler gaitzaten jotzen dugu erdarara, eta horrek galtzen gaitu. Guk gurea egin behar dugu, eta konbentzituta dagoenak euskaraz egin behar du. Bakoitzak hartu behar du bere ardura, eta besterik gabe, euskaraz egin, ondokoak gelditu arte. Bide batez, konturatuko da momentu batean beharra duela. Hori euskaldunok bultzatu behar dugu.

Konplexua al dute Irungo euskaldunek?

Ez dakit konplexua den. Errazagoa da erdaraz bizitzea, hori egia da. Ez gaude konbentzituta hizkuntzak gorde beharreko altxorrak baino gehiago direla. Bizitzeko, gozatzeko tresnak dira. Batzuetan hizkuntza etxeko gozotasunarekin lotzen dugu soilik. Hori baino askoz gehiago da euskara.

SOLASEAN emankizunean egindako elkarrizketa. Behe Bidasoko euskal hedabideek elkarlanean martxan jarritako ekimena da SOLASEAN (Irunero, Txingudi Online, Antxeta Irratia, Bidasoamedia, Oarsobidasoko Hitza).

Olaizola Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Lanean ari dira Ribera beken irabazleak

Irailean aurkeztuko dituzte ikerketetan oinarritutako artelanak

Antropologia eta artea uztartuko dituzten bi proiektu saritu ditu Ribera beken lehen edizioak. Gorka Alvarezek eta Alazne Corralek antzerki foro bat egingo dute, konpondu gabeko gatazka baten inguruan hausnartzeko helburuarekin. Iker Eizagirrek eta Oier Gilek, azken bi hamarkadetako aldaketek Irungo identitatean izan duten eragina aztertuko dute, ikerketarekin lotutako arte ekintza bat burutzeko. Irungo Udaleko Kultura arloak antolatu du beka. 9.000 euroko dirulaguntza jasoko du proiektu bakoitzak, eta irailera arteko epea izango dute bikoteek, ekimena aurrera eramateko. Ribera jardunaldien bigarren edizioan aurkeztuko dituzte emaitzak.

"Asko eraldatu da hiria, arlo produktiboan, alde batetik: aduanen amaiera, desindustrializazio prozesua, ekonomiaren tertziarizazioa etab."
Iker Eizagirre, antropologoa

"Ikertzeko erreminta gisa ulertzen dugu antzerkia"
Alazne Corral, artista

Hamarkadetan zehar Bidasoari bizkarra emanez hazi eta gero, ibaiertzera hurbiltzeko saiakera egiten ari da Irungo Udala, arlo ezberdinetan. Iaz, Abenida zubiaren mendeurrenaren hariari tiraka, memoria historikoaren inguruko zenbait proiektu martxan jarri zituen. Arte garaikidearekin uztartuta, adibidez, Ribera jardunaldiak antolatu zituen irailean, Bitamine Faktoria artisten kolektiboarekin elkarlanean. Diziplina ezberdinetako hamar artista baino gehiagoren lanak aurkeztu zituzten, egun batez, Abenida zubiaren inguruan. "Arte garaikidearen bidez, Bidasoa ibaiari, memoria historikoari eta muga kontzeptuari buruz hitz egingo zuten proiektuak sustatzeko helburuarekin sortu zen Ribera", azaldu du Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak: "Gure hiriaren identitateko elementuak dira, gure iragana azaltzen dutenak".

Ekimenak jarraipena izango zuela aurreratu zuten orduan. Orain, izen bereko beken irabazleen berri eman dute. Bertako artistak antropologoekin, soziologoekin, historialariekin edo hezkuntza arloko profesionalekin harremanetan jartzea izan da bekaren helburua, diziplina arteko bikoteak osatuz. "Ezaugarri horiek dituen proiektu bakarra da gure inguruan", azpimarratu du Eizaguirrek. Bekaren oinarriek proposatutako profilak betetzen zituzten Alazne Corral artista donostiarrak eta Gorka Alvarez antropologo elorriotarrak. "Urteak generamatzan elkarrekin lan egiten, Zapalduen Antzerkia tailerretan", azaldu du Corralek: "Deialdia ikusi genuenean, zer proposatuko genuen hausnartu, eta aurkeztea erabaki genuen".

Corralen ikaskide izan zen Iker Eizagirre, antropologian. Oier Gil artistaren laguna da, eta aspaldian zebiltzan elkarrekin lan egiteko gogoz. "Ikusi genuen aukera polita zela gure lanaz liberatu eta denbora eskaini ahal izatea gure hiriaren inguruko azterketa bat egiteko", adierazi du Gilek. Irundarrak izanik, Ribera ekimenaren inguruko ikuspegi hurbilagoa dute. Ondorengo hausnarketa egin du Iker Eizagirrek: "Irungo ekonomia hirugarren sektorean zentratzen hasi da, eta horrekin lotuta, beharrezkoa da Irun turismo merkatuan kokatzea. Horretarako, Bidasoa ibaia eta muga erreklamo ona izan daitezke". Logika horretan kokatu ditu Oier Gilek, udalak Bidasoa ibaiari begira egindako beste zenbait ekintza, Oxinbiribiletik Behobiara joango den egurrezko pasabidearena, adibidez: "Guggenheim efektu moduko bat bilatzen dute, bidasoar erara.

Globalizazioa eta irundar identitatea

Iritzi horiek plazaratzeko argudioak dituzte Eizagirrek eta Gilek, sakon aztertzen ari baitira Irun hiriak azken hamarkadetan izan duen bilakaera. Irailerako aurkeztuko duten esku-hartze artistikoa prestatzeko, ikerketa antropologiko mardula egiten ari dira. Hiriak azken hamarkadetan jasan dituen aldaketak aztertuz hasiko dira: "Asko eraldatu da hiria, arlo produktiboan, alde batetik: aduanen amaiera, desindustrializazio prozesua, ekonomiaren tertziarizazioa etab. Bestetik, alde erreproduktiboan: familia ereduetan, aisialdi ereduetan, kontsumo ohituretan etab.". Argi dute aldaketak ez direla Irunen soilik gertatu, horregatik, testuinguru orokorrago batean kokatuko dituzte. Globalizazioak zein inpaktu nagusi izan dituen azalduko dute. Marko teorikoa osatuko dute, bildutako material bibliografikoarekin.

Ondoren, aztertutako aldaketa guzti horiek, Irun hiria ulertzeko moduan, eta irundar identitatean zein eragin izan duten ikertuko dute. Horretarako, elkarrizketak egingo dituzte irundarrekin. Arteari ere erreparatuko diote, eta besteak beste, kaleko arte espresioak aztertuko dituzte. "Ez da berdina Che Guevararen murala edo kantineraren eskultura ikustea. Bestalde, Irunen badaude hainbat arte espresio, mundu mailan ezagunak direnak, baina Irungo identitate hegemonikoak nabarmendu ez dituenak. Oteizaren eta Basterretxearen etxea zein egoeratan dagoen ikustea besterik ez dago", argitu du Oier Gilek. Burutzen duten ikerketan oinarrituta, esku-hartze artistiko bat prestatuko dute Gilek eta Eizagirrek.

Antzerki parte hartzailea

Haien aurreko esperientzietan oinarrituta, herri antzerki talde bat eratuko dute Alazne Corralek eta Gorka Alvarezek Irunen. Memoria historikoarekin lotuta, konponbiderik izan ez duen gatazka baten gaia hautatuko dute parte hartzaileek, eta antzerkiaren bidez, haren inguruan hausnartu eta irtenbideak bilatuko dituzte. “Ikertzeko erreminta gisa ulertzen dugu antzerkia. Antzerki foroaren formatua erabiliko dugu: gaia hautatu, antzerki batera eraman, errepresentazio bat egin, eta haren inguruan hausnartu, eta alternatibak proposatu”, azaldu du Alazne Corralek. Jendearen ekarpenak, iritziak eta proposamenak bildu, sintetizatu, eta haiekin proiektu bat martxan jarri nahi lukete ondoren.

Gorka Alvarezek azpimarratu du ez direla ohiko antzerki zuzendariak: “Dinamizatzaileak gara, baina antzerkia, Irungo jendeak egingo du”. Alde horretatik, ziurgabetasun puntu bat dutela onartu dute. Ez baitira bertakoak, horrek dakartzan abantaila eta desabantaila guztiekin. “Inguru honetan genituen kontaktuetatik tiraka hasi gara. Zenbait kolektiborekin elkarrizketak eduki ditugu jada. Antzerki eskoletara ere joango gara, eta kartelak jarriko ditugu. Azpimarratu nahi genuke, dena den, ez ditugula antzerkilariak soilik nahi. Jende arrunta gonbidatu nahi dugu”, zehaztu du Corralek. Tailer irekiak egingo dituzte, jendeak dinamika proba dezan.

Momentuz, artista-antropologo elkarlana aberasgarria izan dela onartu dute bi bikoteek. Corralek eta Alvarezek denbora daramate lankidetzan, eta ondo ezagutzen dute elkar. Eizagirrerentzat eta Gilentzat, ordea, berria izan da esperientzia. “Lan egiteko bi ikuskera ezberdin dira, kontsentsu ariketa luzeak egin behar dira. Baina nik uste, antropologiaren ikuspegitik, artista batekin lan egitea ekarpen handia dela. Jakintza sozializatzeko modu ona da artea”, aipatu du Iker Eizagirrek. Elkarrenganakoa da interesa, Oier Gilek baieztatu duenez: “Artistok, askotan ikerketa bat egiten dugu, baina ez dugu inoiz sakontzen, antropologo batek egin dezakeen moduan”. Fruitu aberatsa eman dezake, beraz, antropologo-artista elkarlanak.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Aste Santua denontzat

Epe laburreko egonaldiak eskaintzen ditu Caserrek, senideei atsedena emateko

Gainean ditugu Aste Santuko oporrak, eta familia osoak gozatu ahal izan ditzan, aukera zabala eskaintzen du Caserrek. Anakako eta Betharramgo egoitzetan, epe eta ezaugarri ezberdinetako egonaldiak egin ditzakete adinekoek, senideek atsedena hartu ahal izan dezaten. Egonaldi iraunkorrak, aldi baterakoak, familiari atsedena ematekoak edo errehabilitazioan eta ebakuntzen ondokoan daudenei zuzenduak dituzte. Bestalde, eguneko zentroa dute egoitzek, eta orduka erabil daiteke.

Eskaintza pribatuaz gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako zenbait programatan parte hartzen dute Caserreko egoitzek. Sendian programaren bidez, hilabetean 3-5 egun arteko egonaldia egin dezakete adinekoek. Atseden hilabetea programari esker, aldiz, urtean hilabete bat egin dezakete egoitzetan, edo hamabost eguneko bi txanda, bestela. Bi kasuetan, udaletxeko gizarte zerbitzuetara jo beharra dago, haiek kudeatzen baitute programetako parte hartzea.

Urteko 365 egunetan daude zabalik egoitzak eta eguneko zentroak. Ez dago gutxieneko egonaldirik, gau bakarra ere pasa daiteke bertan, nahi izanez gero. Izan ere, senidea modu iraunkorrean egoitzan sartzeko beharrik gabe, epe laburragoetako egonaldien bidez atseden handia har daiteke. Caserreko arduradunek egoitzetara hurbiltzeko eta animazioetan parte hartzeko gonbidapena luzatu dute. Ez da erraza senidea egoitzara bidaltzeko urratsa ematea. Baina aldez aurretik gertutik ezagutuz gero, samurragoa izan daiteke.

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak
- Familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten gaixoentzako egonaldiak.
- Eguneko zentroak, 365 egunetan irekita
- Babespeko apartamenduak

Gure **giza-taldea** gure adinekoek behar dituzten profil profesional guztiek osatzen dute: etengabe birziklatzen den gaitasun teknikoa du eta, orobat, pertsona bakoitzaren beharretan ardaztutako arreta sozio-sanitario berritzaileak bermatzen duen giza-kalitatea.

* Bi egoitzek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako plazak dituzte.
* Bi egoitzek Pirineo Atlantikoetako Departamentuarekin hitzartutako eguneko zentroak dituzte.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

ALICIA CEBRIÁN, ilustratzailea:
“Erakusketak oroitzapen eta sentimendu asko piztu dituela iruditzen zait”

Erakusketa laburra izan da, baina itzala utzi du. Martxoaren 14tik 24ra, CBA kultur gunean egon da Alicia Cebrián (Irun, 1983) ilustratzailearen *Maialen, 37+2*. Amatasunak eragindako sentipenak irudikatu ditu Cebrianek. Gertu zituen oroitzapenak, hamasei hilabete besterik ez baititu Maialen alabak. Noelia Lorenzo idazlearen testuek osatu dituzte erakusketako koadroak. Udara aldera, erakusketa beste zenbait tokitan eskaintzeko aukeren bila ari da Cebrián.

Zer irudikatu duzu erakusketako ilustrazioetan?

Erditzearen ondoren, batez ere, izan dudan esperientziatik sortu da ideia. Esperientzia zoragarria izan zen niretzat, baina oso gogorra, era berean. Egoera konplikatuak bizi izan ditut, bakardade sentimendua, eta aldaketa fisiko handiak, besteak beste. Guzti hori kontatzeko beharra nuela sentitu nuen. Nire bizipenak askatzeko, eta ahal izanez gero, egoera normalizatzen laguntzeko. Gaiari buruz hitz egiteko beldurra izaten dugu batzuetan.

Nolatan sortu da Noelia Lorenzorekin elkarlanean aritzeko aukera?

Aspalditik ezagutzen genuen elkar. Bakoitzaren proiektuen inguruan hizketan hasi ginen egun batean. Nik erakusketa honen berri eman nion, baina ipuin baten moduan imajinatzen nuela esan nion. Testuak idaztea proposatu nion, onartu zuen, eta ni pozez zoratzen nago. Orain ezin ditut imajinatu ilustrazioak testurik gabe.

Zer nolako harrera izan du erakusketak?

Oso-oso ona. Mezu pila bat jaso ditut, erakusketarekin hunkitu egin den jendearenak. Harrituta nago oraindik. Oroitzapen eta sentimendu asko piztu dituela iruditzen zait. Ondokoak ere berdina pasa duela sentitzeak lagundu egiten du.

Noiz hasi zinen ilustrazioaren munduan?

Betidanik marraztu izan dut, txiki-txikia nintzenetik. Nire espresio bide nagusia izan da. Hamar urterekin, pintura klase batzuetara joaten hasi nintzen. Oleoa eta akrilikoa lantzen ibili nintzen orduan.Unibertsitatera joan nintzenean, ilustrazioa ezagutu nuen. Espresatzeko modu bikaina iruditu zitzaidan niretzat.

Zure ogibidea al da?

Denbora erdiko lan bat dut, eta gainerakoan, ilustrazioan aritzen naiz. Urtean bizpahiru erakusketa egiten ditut, eta zenbait enkargu ere ateratzen zaizkit: postalak, egutegiak etab. Urte amaierarako, handi samarrak diren bi proiektu ditut. Zaila da ilustraziotik bakarrik bizi ahal izatea. Hasiera da zailena, eta hamar-hamabost urteko epea izan daiteke hori. Baina pixkanaka ari naiz nire bidea egiten.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

BAKAILAOA DASTA EZAZU

R&J BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Egullor Bacalaos

Harrobi kluba da Irungo Txirrindulari Elkartea

Zazpi talde ditu I.T.E.k, maila eta modalitate ezberdinetan

Alebin eta infantil mailako txirrindularitza probak egingo dituzte apirilaren 9an Colon Ibilbidean, Igande Sasoi ekimenarekin batera. Ginkana ere antolatuko du Irungo Txirrindulari Elkarteak, nahi duenari bizikletarekin dibertitzeko aukera eskainiz. Lasterketetan, elkarteko txirrindulari gazteenek parte hartuko dute. "Talderik handiena da", aitortu du Juanjo Garagarza presidenteak.

Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza zeinen zabala den kontuan hartuta, zaila izaten da haurrak erakartzea. Hala ere, klubeko monitoreek ikastetxeetan egiten duten lanari esker, harro egoteko moduko neska-mutilen kopurua dutela baieztatu du Juanjo Garagarzak. Gainditu beharreko eragozpenak daudela aitortu du, hala ere: "Alde batetik, erortzeari beldurra. Ulertu behar da, txirrindularitzan aritzen den gaztea, noizbait erori egingo dela. Baina futbolean ostikoak jasoko ditu, adibidez. Bestetik, errepidean entrenatzeko ideiarekin izutzen dira gurasoak". Edonola ere, Garagarzak azpimarratu du alebinak eta infantilak ez direla errepide irekira ateratzen. Lehiaketak zirkuitu itxietan izaten dira, eta entrenamenduak ere horrela egiten dituzte, N-121 errepide zaharrean, Endarlatsara bidean, adibidez.

> "Errepidean entrenatzeko ideiarekin izutzen dira gurasoak"
> **Juanjo Garagarza, I.T.E.ko presidentea**

Kadete mailatik aurrera, errepidean izaten dituzte lasterketak. Beraz, entrenatzera ere errepidera irteten dira txirrindulariak, entrenatzaileek eta zenbait gurasok lagunduta. "Ezin izaten dugu haien erritmoan entrenatu, baina autoetan laguntzen ditugu", azaldu du Javier Urangak. Errepidean aritzen diren txirrindulari federatuek astebururo izaten dituzte probak, otsailaren amaieratik aurrera. Alebin eta infantil mailakoek ekainean bukatzen dute denboraldia, uztailean kadeteek, eta irailean juniorrek. Salbuespena badira ere, 23 urtez azpiko bi txirrindulari ere baditu, gaur egun, Irungo Txirrindulari Elkarteak. "Berez, juniorretatik aurrera, haien bidea egin dezaten uzten diegu", aipatu du Garagarzak: "Baina ez badute talderik topatzen, gurekin lehiatzeko aukera ematen diegu".

Errepidea alde batera utzi gabe, Irungo Txirrindulari Elkarteko zikloturisten taldea azpimarratu beharra dago. 100 bat lagun ibiltzen dira harekin. Zikloturismo egutegia antolatzen du Irungo Txirrindulari Elkarteak, eskualdeko beste taldeekin, Txingudirekin, San Martzialekin eta Hondarribiarekin koordinatua. Martxotik irailera arteko egutegia izaten da.

> "Juniorretatik aurrera, haien bidea egin dezaten uzten diegu"
> **Javier Uranga, I.T.E.ko presidenteordea**

Trialsinaren gorakada, zirkuituarekin lotuta

Azken urteotan asko hazi da trialsin sekzioa, Irungo Txirrindulari Elkartean. Gaur egun zazpi txirrindulari ditu. Gorakada lotuta dago, alde batetik, eskualdeko bi pilotuk nazioartean lortu duten mailarekin: Ion Areitio eta Gorka Susperregi Elite kategorian lehiatzen dira. Areitio hondarribiarra maiz izaten da nazioarteko podiumetan. Bestalde, Puianako zirkuituaren eragina ere nabari da. Izan ere, eskualdeko lehen pilotuak entrenatzen hasi zirenean, leku aproposen bila ibili behar izaten zuten, alde batetik bestera. Gaur egun, zirkuitu iraunkorra dute, anitza eta behar izanez gero, lehen urratsak emateko egokia.

Aukera zabala eskaintzen baitu. Izan ere, BTT ibilbidea prestatu dute, trialsin zirkuituaren inguruan. "Errepidean aritzen diren gazteekin, pistan eta mendian ibiltzen gara neguan. BTTan aritzeko horrelako ibilbide bat edukitzea sekulako abantaila da", azaldu du Javier Urangak. Lehiaketak antolatzeko asmoa dute, gainera, bai BTTan, baita ziklokrosean ere.

GORKA SUSPERREGI, Trialsin pilotua:

“Aurrera pauso handia izan da Puianako zirkuitua”

Irungo Txirrindulari Elkarteko harrobitik ateratako azken harribitxia da Gorka Susperregi trialsineko pilotua. Gazte mailatan Espainiako Txapeldun izandakoa da. Iaz, zazpigarren gelditu zen Elite kategoria nagusian, 21 urterekin. Mundu mailako ranking-ean hemezortzigarren tokian amaitu zuen. Puianako trialsin zirkuitua du ohiko entrenamendu leku.

Zein dira Irungo zirkuituaren ezaugarri nagusiak?

Esango nuke oso zirkuitu konpletua dela. Alderatuta hemendik gertu ditugun beste zirkuitu askorekin, behintzat, zirkuitu ona da. Lekua oso aproposa da. Gero, sekzio ezberdinak ditu, zati teknikoak, eta jauzi handiak ere bai.

Aurrera pauso handia izan da, inguruko pilotuentzat?

Bai, guretzat, eta orain hasten diren gaztetxoentzat, batez ere. Guk topatzen genituen lekuetan entrenatzen genuen, Hondarribiko espigoiko arroketan, askotan. Baina lehen urratsak emateko, Puianako zirkuitua egokiagoa da.

Denbora daramazu, jada, nazioarteko lehian. Zein helburu duzu aurten?

Aurreko urtekoa hobetzea, ahal dela. Orain Elite kategorian nago, eta zaila da lortzea.

> “Aurten, astean bi aldiz ari naiz txirrindarekin entrenatzen”

Zenbat entrenatzen duzu, helburu horren bila?

Aurten, astean bi aldiz ari naiz txirrindarekin entrenatzen, ordu eta erdi egun bakoitzean. Beste bi egunez gimnasioko lana egiten dut.

Ion Areitio hondarribiarra duzu erreferente. Baloratzeko modukoa da berarengandik ikasteko aukera.

Pribilegioa da niretzat, zalantzarik gabe. Beste batzuk, beharbada, ondoan horrelako arerio bat edukita, desmoralizatu egingo lirateke. Ni berarengandik ikasten saiatzen naiz.

Argazkia: Peli Lekuona.

Artikutza finka: Eskas-Eroiarri ur-jauzia-Enobieta urtegia-Artikutza-Eskas

GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

Iberiar penintsulako leku euritsuenetako bat da Artikutza. Nafarroan dago, Goizueta udalerriko lurretan. Hala ere, Donostiako Udala da finkaren jabea. 1919an erosi zuen, 3.200.000 pezetaren truke. Hiritarrentzako eta bisitarientzako ur hornidura handiagoa behar zuen udalak. Ganadua, arrantza eta ehiza debekatu zituen Donostiako Udalak.

Basoak hartzen du lursailaren zatirik handiena, baina hura zeharkatuz, Artikutza auzora iritsiko gara. Autoz iristeko, Donostiako Udalaren baimena behar da. Dena den, gure ibilbidea Eskas guardetxean hasiko da, Artikutzaren kanpoaldean. Bertara autoan iristeko arazorik ez dago, Oiartzundik egin daiteke, GI-3631 errepidetik, Bianditz mendatean gora.

Eskas guardetxetik, maldan behera hasiko gara, PR NA-124 bidean, kartelak eta seinale zuri-horiak jarraituz. Errepide batetara iritsiko gara (10min.). Lehen saihesbidea hartuko dugu. Seinaleak adieraziko digu 5,2km falta direla Artikutza auzora iristeko. Baso ederrean murgilduko gara. Zuhaitz asko topatuko ditugu lurrean erorita. Izan ere, hildako zuhaitzak moztea debekatuta dago Artikutzan.

Erreka topatuko dugu bidean, eta egurrezko bi zubi igaro beharko ditugu (50min.). Erreka atzean utzi eta Erroiarri ur-jauzira helduko gara (1:10min.). Artikutza auzora iritsiko gara. Enobietako urtegiko presa ikusi ondoren, txokolate beroa har dezakegu Artikutzako Ostatu Zahar tabernan.

Artikutza auzotik aterata, malda gogorra igo beharko dugu. Eskuin aldera hartuko dugu, “Trenbide zaharra”ren bidea jarraituz (2:10). Begiratoki batetara helduko gara hamar minuturen buruan. Bideak errepidera eramango gaitu berriro. Aurrera egingo dugu, errepidea utzi gabe, Eskas guardetxeraino.

ZUGARRAMURDIKO SORGINA

por Gorka Valdajos

Monday December 19, 20
1 visita | 0 comentar
Guardado en KOMIKI BAT SOR



Dunboa 3. zikloa

DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDEN ANIMALIAK

Dunboako 6. mailako ikasleak ekosistema lantzen ari ginela Euskal Herrian desagertzeko zorian dauden animalien ikerketa egitea pentsatu genuen. Horretarako taldeka jarri eta taldeb bakoitzak animalia baten azterketa egitea erabaki zuen.
Zerrenda, zoritxarrez, luzea izan arren bederatzi animalia hauek aukeratu genituen: Bisoi europarra, Mazkar arantzaduna, Arrano beltza, Saguzar mediterraneoa, Basoko igela, Lepa horia, Bonelli arranoa, Apo armatua eta Uhandre alpetarra.
Landu ondoren orma irudi handia osatu genuen prestatutako fitxa guztiekin eskolako txoko berdean ipintzeko.
Hemen azaltzen dizuegu guk landutako animalia batzuen bi fitxa adibide gisa.



IZENA
Bisoi Europarra (Mustela Lutreola)

EZAUGARRIAK
Ugaztuna da. Oso txikia da, 45 zentimetroko luzera du, buztana barne, 1.300 gramo pisatzen du. Belarri txikiak eta hanka sendoak ditu. Ile arre iluna eta distiratsua du.
Emeak lau kume izaten ditu eta itsu jaiotzen dira.
Arrainak jaten dituzte.
Es du ahaduna handian kontra egiten.

HABITAT
Ingurune hezeetatik gertu bizi da, adibidez paduretan eta ibaietan, beti txoko babestuetan.
Gaur egun gehienak Nafarroan, Ega ibaia eta Bastanen, bakarrik aurki ditzakegu.

POPULAZIOA
Gaur egun Euskal Herrian populazio oso txikia da eta desagertzeko arriskuan handian dago.

ZERRATZA
Lurrugintza-etxaldetatik ihes egindako Bisoi Amerikarrarekin lehia sulean dago. Hauek ia, ham asko, ugaztun hunek Euskadin duen arriskuaik handiena.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irungo Luzio Valverde Gali jasoa (El Bidasoa, 1960-IV-2).

Baserritar bat zen zelaian

Baserritar bat zen zelaian, bere lanak egiten. Eta etorri zen urrutittik gizon gazte bat.

Deittu zion:

-Aita!

-Zein yaiz?

-Joxe. Gaur etorri naiz Ameriketatik!

-Bueno, juan itxera. An da ama.

Eta segittu zun lanian.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Euskararen hilabetea izan da martxoa

Irungo ikasleei zuzendutako zenbait ekintza antolatu ditu Irungo Udalak

Hiriko ikastetxeetako eta institutuetako haurrei eta gazteei zuzendutako jarduerak antolatu ditu Irungo Udaleko Euskara arloak martxoan zehar, Euskararen Hilabetea ospatzeko. Irungo Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren baitan dago programa. 1998an antolatu zuen udalak, lehenengoz, euskararen inguruko sentsibilizazioa eta motibazioa sustatzeko asmoz.

Haur Hezkuntzatik hasita, DBHko 4.mailara arteko ikasleentzako jarduerak antolatu ditu Euskara arloak. Hau da, 3 urtetik 16 urtera arteko haurrei eta gaztetxoei zuzendutakoak. Aurten, 7.200 ikaslek parte hartu dute jardueretan. Euskararen bideari jarraituz leloa hautatu dute. Martxoaren 10ean izan da lehen hitzordua. DBHko 1.go eta 2.mailako 400 ikasle bildu dira Ficoban, Mintzodromo Gaztean. “World Cofferen dinamika erabili dute. Berdintasunaren inguruko gaiak eman zaizkie, martxoaren 8arekin lotuta”, azaldu du Arantza Zulet Euskara arloko teknikariak.

Martxoaren 15, 16 eta 17an, Eidaberen "Baserrian Amets" 50 minutuko antzezlana eskaini diete Haur Hezkuntzako ikasleei, Amaia Kultur Zentroan. Elikagaien jatorriari buruzko antzezlana da. Martxoaren 21 eta 22an, LHko 3. eta 4. mailako ikasleen txanda izan da. "Wangari, zuhaitz neska" antzezlana ikusteko aukera eduki dute, Karlik Danza Teatrok eskainita. Azkenik, martxoaren 23an, DBHko 3 eta 4 mailako ikasleek Txaloren "Jainko basatia", Yasmina Reza antzerkigile frantsesaren komedia dramatikoa ikusi dute.

Irunero berezia

Irunero aldizkariak ere parte hartu du Euskararen Hilabetea programan. Ikasleen sormena erakusteko, bi ale berezi argitaratu ditu. Batean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1.go eta 2.zikloko ikasleen lanak jaso ditu. Bestean, Lehen Hezkuntzako 3.zikloko eta DBHko ikasleenak bildu ditu. Ikastetxeetan eta institutuetan banatu dira, eta Euskara arloaren web gunean ere eskura daude.

MARTE. SORKUNTZA LABORATEGIA

Txikientzat: 4 urtetik 14 urtera arte.
Ordua: astelehenetik ostegunera 17:15etatik 19:15etara; larunbatetan 11etatik 13etara.

Helduentzat:
Ordua: astelehenetik ostegunera 19:30etatik 21:00etara; larunbatetan 11etatik 12:30etara.

Urritik ekainera.

Prezioak: egun bat 50€/hilabetea; bi egun 75€/hilabetea (materialak barne).

Informazio gehiago:

678 948 315 / 665 724 684;
martelaborategia@gmail.com

EUROPA. IRUNGO GAZTEEN MUGIKORTASUNERAKO NAZIOARTEKO ZERBITZUA

Europako beste herrialde batera bidaiatzeko interesa duzu ikasteko, praktikak egiteko, lan egiteko, boluntariotzan aritzeko, gazte trukeak egiteko? Horrela bada, hauxe da zure tokia.

CBA Kultur Gunean gaude - San Juan Harria plaza, z/g, -1.go solairua.
Ordutegia: astelehenetik ostegunera 17:00etatik 19:30etara eta astearteetan 10:00etatik. 14:00etara.
Eta nahiago baduzu, bidali email bat ieurope@irun.org helbidera edo deitu 943 505 446 telefonora.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

LAN ESKAINTZA: MAD SCIENCE

Monitoreak behar ditugu Eureka Zientzia Museoko eta ikastetxeetako taldeetarako ekintzetako gidari gisa lan egiteko.

Lantokia: Donostia.

Baldintzak:
> frantsesean eta euskaran goi-maila
> komunikazio gaitasuna duten pertsonak (ez da beharrezkoa lizentziatua izatea).

Ordutegia: lanaldi erdia (goizetan; udan eta oporraldian beste txanda batzuk egiteko aukera).

Txandak: 3,5 ordu (09:30 - 14:30 arteko tartean).

*** 2 hiletik behin asteburu batean ere lan egiten da.

Soldata: Hilean 450 eurotik hasi (prestakuntza - laguntzaile denboran) eta 600 euro gordinera artekoa.

Berehala hasi behar da !!!

Bidali zuen CV-a helbide honetara: cristina@madscience.org.es (kontaktua: Cristina Arriola).

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain



Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak, kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, ainordekotzak...
Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Martxoak 31-apirilak 2

Zer? Gipuzkoako Txikien II.Azoka.

Erakusketa eta salmenta Tailerrak, Hitzaldiak, Haur aisialdi gunea, Jolasak, Zozketak, Opariak...

Ordutegia? Ostirala: 16:30-20:30; Larunbata eta igandea: 11:00-14:00 eta 16:30-20:30.

Non? Ficoba erakustazoka.

Prezioa: Sarrera orokorra 2 euro; 12 urte arteko gazteek doako sarrera. Doako parkina.

Apirilak 1

Zer? Antzerkia: Yllana 25.

Ordua? 20:000etan.

Non? Amaia KZ. Pio XII, 4.

Prezioa: Sarrera orokorra: 14,30 euro. Langabeek, 14 urtetik beherakoek eta Gazte Txartela dutenek: 9,20 euro.

Salmenta:-
-Interneten bidez.
- Irungo Turismo bulegoan.

Apirilak 2

Zer? Herri kantu bazkaria. Korrika dela eta, Erramun Martikorenak girotua.

Non? Landetxa Auzo Elkartean.

Ordua? 14:30.

Prezioa: 20 €, 12 urte baino gutxiagokoak 5 €.

Salmenta:
- Zuzenean: Itzala eta Otazpi tabernetan eta elkartearen tabernan.
- Telefonoz: 665709036.

Apirilak 3

Zer? "Irun Lagunkoia Sustraietatik"-Parte hartze saioa.

Euskadi Lagunkoia Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak bultzatutako ekimen bat da.

Haren helburua adinekoek eta, oro har, herritarrek udalerria hobetzen parte har dezaten bultzatzea da, zahartu ahala nork bere bizimodua izaten jarraitu ahal izateko.

Ordua? 18:00-20:00.

Non? Palmera Montero gizarte gunean, 2.aretoan.

Prezioa? Doan.

Apirilak 7

Zer? Musika Museoan-Irungo Musika Eskolako ikasleen kontzertua.

Non? Oiasso Erromatar Museoa. Eskoleta, 1

Ordua? 20:00.

KORRIKA IRUNEN:

Apirilaren 4an pasako da Korrika Irundik.

Oiartzundik iritsiko da, Katea-Landetxara, 14:00 inguruan.

Hendaian zehar ibili ondoren, 16:00etan Irunen izango da berriro, Hondarribira bidean.

Apirilak 8

Zer? Musika: Zuhainpeko soinuak.

Euskal musikaren sustraia ikuspuntu garaikidetik berdeskubritzeko aukera aparta dugu. Jean Mixel Bedaxagar beste hainbat artista handirekin arituko da, Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek sortutako ikuskizunean.

Non? Amaia KZ
Pio XII, 4.

Ordua? 20:00.

Prezioa: 7,5 euro.

Salmenta:

- Interneten bidez.
- Irungo Turismo bulegoan, Luis Mariano plazan.
- Amaia KZko leihatilan, ikuskizunaren egunean.

Félix Manso

IBARLA

- ✓ Eguneko menua
- ✓ Karta
- ✓ Dastatze menua
- ✓ Pintxoak eta errazioak
- ✓ Bertako produktua, freskoa eta sasoikoa
- ✓ Jatetxe apaina, zaindua, erosoa...
- ✓ Terraza zabala barruan eta kanpoan...
- ✓ Leku eguzkitsua eta lasaia, inguru zoragarri batean
- ✓ Ospakizun txikientzeko leku aproposa

943 841 964 Meaka Auzoa, 9, Irun www.felixmanso.com